

ELKARTEAREN ESTATUTUAK

I . KAPITULUA

IZENA

- 1. artikulua.-** 1983ko Urtarrilaren 28an R.P.G 1437 erregistro-zenbakiarekin inskribatutako IDIAZABALko **ADIN-ETXE** (Idiazabalgo Jubilatuta Elkartea) estatutu hauek aldatu egin dira, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren eta EAEko Autonomia Estatutuko 9. eta 10.13 artikuluen arabera. Elkartek gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna du eta ez du irabaz asmorik.

ELKARTEAREN HELBURUAK

- 2. artikulua.-** Elkartek XEDE hauek ditu:

IDIAZABALgo hirugarren adineko pertsonentzako xede soziala eta kulturala, gizarte zentro bat izan dezaten, eta hor ekitaldiak, ospakizunak, bilerak, ibilaldiak... antolatu ditzaten eta kideentzako ongi pasatzeko eta aisiarako izan dadin.

- 3. artikulua.-** Xede edo helburu hauek betetzeko, jarduerak egingo dira:

- * Osasun fisikoari buruzko tailer hezigarriak eta osasun fisikoa hobetzeko tailerrak.
- * Memoria lantzeko, berreskuratzeko eta hobetzeko tailerrak, dementzia eta Alzheimerra bezalako gaixotasunei aurrea hartzeko tailerrak, hitzaldiak.
- * Gizarte arloarekin, pertsonen artekoarekin, parte hartzearekin, boluntariotzarekin... zerikusia duten alderdiei buruzko tailerrak eta hitzaldiak, alderdi horiek guztiak hobetu daitezzen.
- * Informazio eta aholkularitza jarduerak.
- * Teknologia berriei buruzko prestakuntza ikastaroak, zahartze aktiboa eta osasuntsua.
- * Elkartek pentsiodunen interesak babestuko ditu beti.
- * Elkartzea sustatu eta bazkideen arteko adiskidetasuna erraztu.
- * Administrazio, lan eta erakunde mailako agintariei eta eskumendun Organismoei eskatu bazkideen arazoak konpontzeko, Legearen eta Estatutuen araberrako ekintzak eginaz.
- * Bazkideen bizi-baldintzak hobetu eta arazoak konpontzeko neurri zehatzak eta globalak aztertu.
- * Bazkideen aisia arloko heziketa eta okupazioa hobetzeko liburutegia, jolasak, zinema-emanaldiak, hitzaldiak... antolatu.

* **Dagokien gobernu-organoei egoki iritzitako gainerako guztiak**



Nahi izanez gero, J0D0Z-T3P3G-2982 idazkariaren bidez egiaztatzen da dokumentu hau zuzena dela eta ez jakin liteke egoitza elektronikoa honetan: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T3P3G-2982 en la sede electrónica <https://euskadi.eus/localizador>

HELBIDE SOZIALA

4. artikulua.- Elkartearen gizarte-egoitza, kale Nagusia 52 zbkian 20213 IDIAZABAL (Gipuzkoa), egon da.
Bere jarduera garatzeko lurralde-eremuari dagokionez, Idiazabalera (Gipuzkoa) mugatuko da

II. KAPITULUA

ORDEZKARITZA ORGANOAK

5. artikulua.- Elkartearen kudeatzailea eta ordezkaria Zuzendaritza Batzordea izango da eta Batzorde honetan **presidente bat, presidenteorde bat, idazkari bat, diruzain bat eta gehienez 5 bokal**, egongo dira. Pertsona berberak idazkari eta diruzain karguak betetzeko aukera dago. Kargu guztiak doakoak dira eta ez dute inolako interesik erakundearen emaitza ekonomikoetan beren izenean edo hirugarrenen bidez.
6. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea izango da Estatutu hauetako prezeptuak interpretatzeko eskumendun organoa eta gabeziak betetzeko ere bai, Elkarteen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera.
7. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko karguak Ezohiko Batzar Nagusian izendatuko eta baliogabetuko dira eta 5 urteko iraupena izango dute, behin eta berriro aukeratu daitezkeen arren.
8. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek baja eman dezakete borondatez uko eginda eta horren berri Batzordeari idatziz emanda, baita agindutako betebeharrak bete ez dituztelako eta agintaldia amaitu delako ere.
9. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek Batzorde horretako kide izateko epea amaitutakoan karguan jarraituko dute ordezekoak onartu arte.
10. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak saioak izango ditu bertako presidenteak edo presidenteordeak zehaztu ahala, norbere ekimenez edo kideen erdiak gehi batek eskatuta.
- Zuzendaritza Batzordea eratu dela esango da, kideen erdiak gehi bat joaten direnean; Batzordearen akordioak baliozkoak izateko, gehiengoaren botoak beharko dira, eta beharrezkoa izango da gutxienez kideen erdiak egotea. Berdinketa egonez gero, presidentearen botoa kalitatezkoa izango da.

Presidenteak izango da Batzordeko buru eta bera ez dagoenean presidenteordea edo idazkaria, ordena honetan; bi horietako inor ere ez badago, adinik handieneko Batzordeko kidea izango da Batzordeko buru, Idazkariak akta jasoko du eta dagokion liburuan transkribatuko da.

11. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen ahalmenak:

Zuzendaritza Batzordearen ahalmenak elkartearen xedeekin bat datozen ekitaldi guztietarako izango dira, oro har, Estatutuen arabera Batzar Nagusiaren berariazko baimenik behar ez badu.

Zuzendaritza Batzordearen ahalmen partikularrak dira:

- a. Gizarte jarduerak zuzentzea eta elkartearen administrazio eta ekonomia arloko kudeaketa egitea, eta behar diren kontratuak eta ekintzak egin daitezen adostea.
- b. Batzar Nagusiaren akordioak betetzea.
- c. Urteko Balantzeak eta kontuak Batzar Nagusiari formulatzea eta Batzar horren mende jartzea, onartu ditzan.
- d. Bazkide berriak onartzeari buruz ebaztea
- e. Elkartearen jardura jakinen baterako ordezkariak izendatzea
- f. Bazkideen Batzar Nagusiaren eskumena ez den beste edozein ahalmen

12. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko presidenteak izango da Elkarteko presidenteak ere eta eskudantzia hauek izango ditu:

- a. Elkartearen legezko ordezkaria izatea erakunde publiko edo pribatu guztien aurrean.
- b. Batzar Nagusiaren eta Batzordearen saioak deitu, buru izan eta amaitzea; bateko eta besteko eztabaidak zuzentzea eta berdinketa egonez gero, kalitatezko botoaren bidez erabakitzea.
- c. Adostutako ordainketak agintzea eta bere sinadurarekin agiriak, aktak eta korrespondentzia baimentzea.
- d. Elkartean ibilbide egokirako edo jardueren garapenean beharrezkoa edo komenigarria izan daitekeen premiazko neurri oro hartzea, ondoren Zuzendaritza Batzordeari horren berri emateari kalterik egin gabe.

13. artikulua.- Presidenteordeak ordezkatzeko du presidenteak, gaixotasunagatik edo beste arrazoiren batengatik etorri ez bada, eta presidentearen eskudantzia berdina izango ditu.

14. artikulua.- Idazkariaren kargu izango dira Elkarteko administrazio lanak, ziurtagiriak egingo ditu, Elkartearen legez ezarritako liburuak eramango ditu, bazkideen fitxategia eta erakundearen agiriak zainduko ditu; era berean, zuzendaritza batzordeetako izendapenen inguruko jakinarazpenak emango ditu eta dagozkien Erregistroetan izena eman beharreko gainerako gizarte akordioak ere bai; kontuak aurkeztuko ditu eta agiri arloko betebeharrak beteko ditu, lege dagozkion terminoetan.

15. artikulua.- Diruzainak zuzenduko du Elkarteko kontabilitatea, sarreraren eta Irteeren berri jasoko du eta horien kontua eramango du, eragiketa ekonomikoetan parte hartuko du: Elkarteko funtsak bildu eta zainduko ditu eta Presidenteak agindutako ordainketa-aginduak beteko ditu.

16. artikulua.- Era berean, urteko sarreraren eta gastuen aurrekontua formalizatuko du eta aurreko urteko kontuen egoera ere bai; kontu horiek Zuzendaritza Batzordean aurkeztuko ditu honek Batzar Nagusian aurkez ditzan, onartu ahal izateko.

Bokalek edo kideek beren karguaren berezko zereginak izango dituzte, Zuzendaritza Batzordeko kide diren heinean; era berean, Batzorde horrek agindutako lan ordezkaritza edo batzordeen ondoriozko zereginak ere izango dituzte.

17. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideren batek bere kargua utziz gero, Batzorde horretako beste kideek beteko dute kargu hori behin-behinean, Ezohiko Batzar Nagusian behin betikoa aukeratu arte.

III. KAPITULUA

BATZAR NAGUSIA

18. artikulua.- Batzar Nagusian bazkide guztiak daude eta Elkartearen gobernu organo gorena da.

19. artikulua.- Batzar Nagusiaren bilerak ohikoak eta ezohikoak izan daitezke. Nahitaez egin beharko da Ohiko Batzar Nagusi bat urtero, lehenengo hiruhilekoan, Elkartearen jardueraren plan orokorra onartzeko, Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa aztertzeko, urteko sarreraren eta gastuen aurrekontua onartzeko dagokionean eta aurreko urteko kontuen egoera onartzeko, dagokionean.

Ezohiko Batzar Nagusia egingo da gorabeherak hala gomendatzen dutenean, Presidenteak egin beharra dagoela uste duenean, Zuzendaritza Batzordeak hala adosten duenean aztertu behar diren gaiek hala gomendatzen dutelako edo bazkideen hamarren batek idatziz eskatzen duenean.

20. artikulua.- Ohiko eta Ezohiko Batzar Nagusietarako deialdiak idatziz egingo dira, bileraren tokia, data eta ordua adieraziko dira, baita eguneko gaitzerrenda ere.

Deialdiaren eta Batzar egunaren artean gutxienez 15 eguneko tartea egon beharko da eta nahi izanez gero adierazi daiteke Batzar Nagusiaren bigarren deialdia izango dela lehenengo deialditik ordu erdira.

21. artikulua.- Ohiko eta Ezohiko Batzar Nagusiak lehenengo deialdian eratuko dira botoa emateko eskubidea duten bazkideen heren bat bertaratu bada edo eskuordetuta badago; aldiz, bigarren deialdian eratuko dira botoa emateko eskubidea duten bazkideen kopurua dena delakoa denean.

Akordio guztiak bertan dauden edo eskuordetuta dauden pertsonen gehiengo sinplez hartuko dira, baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean; ondorio hauetarako ez dira kontuan hartuko boto zuriak eta abstentzioak.

Bazkide laguntzaileek hitz egiteko eskubidea izango dute, baina botoa ematekoa ez, Batzarretan.

Bertaratutako edo eskuordetutako pertsonen gehiengo kualifikatua beharko da, hau da baiezko botoak erdiak baino gehiago izan beharko dira, kasu hauetan:

- 
- 
- a. Elkartea desagiteko.
 - b. Estatutu hauek aldatzeko.
 - c. Ondasunak eskuratu edo besterentzeko.
 - d. Zuzendaritza eta Administrazio Batzordeak izendatzeko.
 - e. Dagokionean, ordezkaritza organoen ordainsaria adosteko.
 - f. Elkarteen erabilera publikoko aitorpen eskaria egiteko.
 - g. Elkarteen Federazio bat eratzeko edo horrelako Federazio batean sartzea erabakitzeke

22. artikulua.- Ohiko Batzar Nagusiaren ahalmenak dira:

- a. Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea, dagokionean.
- b. Urteko kontuak aztertu eta onartzea.
- c. Zuzendaritza Batzordearen proposamenak onartzea edo baztertzea, Elkarteen jardueri dagokienez.
- d. Ohiko edo ezohiko kuotak finkatzea.
- e. Ezohiko Batzar Nagusiaren eskumen soila ez den beste edozein.
- f. Ordezkaritza organoetako kideen ordainsaria adostea, dagokionean.

23. artikulua.- Ezohiko Batzar Nagusiaren ahalmenak dira:

- a. Zuzendaritza Batzordeko kideak izendatzea
- b. Estatutuak aldatzea
- c. Elkartea desagitea
- d. Bazkideak botatzea
- e. Federazioak eratzea edo horietan sartzea

IV . KAPITULUA

BAZKIDEAK

- 24. artikulua.-** Elkartean sartzeko eskaria edonork egin dezake jarduteko gaitasuna badu eta Elkarteko xedeen garapena interesatzen bazaio; eskaria egiteko, Presidenteari idatzi bat egin behar zaio, honek Zuzendaritza Batzordean emango du eskariaren berri eta onartzea edo ez onartzea erabakiko da
- Dena dela, eta ondorio guztietarako, ez da bazkide izango sarrerako eskubideak edo kuota ordaintzen ez bada, Batzar Nagusiak adierazitako moduan eta zenbatekoan.
- 25. artikulua.-** Zuzendaritza Batzordeak Elkarteko ohorezko kideak izendatu ditzake norbaitek horretarako merituak dituela uste izanez gero. Ohorezko kideek ez dute kuotarik ordainduko, ezingo dira zuzendaritza karguetarako hautagai eta hautesle izan, eta Erakundeko administrazio eta gobernu organoetan parte har dezakete botorik gabe baina hitz egiteko eskubidearekin.
- 26. artikulua.-** Bazkideek baja hartuko dute arrazoi hauen ondorioz:
- a.** Borondatez uko eginez gero, idatziz jakinaraziko zaio Zuzendaritza Batzordeari, baina ez da behin betikoa izango hilabete igaro arte.
 - b.** Betebehar ekonomikoak betetzen ez badira, urtebetez aldiroko kuotak ordaintzen ez baditu, non eta atzerapena ez duen arrazoitzen Zuzendaritza Batzordearen iritziz.
 - c.** Elkartearen edo bertako kideren baten edo batzuen kalteko jarrera edo jokabidea izateagatik.
- 27. artikulua.-** Elkarteko kideek eskubide hauek izango dituzte:
- a.** Elkartek bere xedeak betetzeko antolatu ditzakeen gizarte jardueretan parte hartzekoa.
 - b.** Elkartek lor ditzakeen abantaila eta onura guztiez gozatzekoa.
 - c.** Zuzendaritza karguetarako hautagai eta hautesle izatekoa.
 - d.** Estatutu hauen ale bat izatekoa eta Elkarteko organoek hartutako akordioen informazioa jasotzekoa.
 - e.** Elkartek bere bazkideak bereizteko sor dezakeen ikurra erabiltzekoa.
 - f.** Zuzendaritza Batzordera jotzekoa, beren eskubideak urratu egin direla uste dutenean, lege egin dezaketen akordioen inpuignazioari kalterik egin gabe

28. artikulua.- Bazkideen betebeharrak izango dira:

- a.** Estatutu hauek betetzea eta Batzar Nagusiek eta Zuzendaritza Batzordeak hartutako akordio baliadunak betetzea.
- b.** Finkatutako kuotak ordaintzea.
- c.** Batzarretara eta antolatutako gainerako ekitaldietara joatea.
- d.** Duen karguaren berezko zereginak betetzea, dagokionean.

29. artikulua.- Elkarteko kideek zehapenak jaso ditzakete beren betebeharren doluzko ez betetzeengatik. Zehapenaren ondorioz gutxienez hilabetez beren eskubideak galdu ditzakete edo Elkartetik behin betiko bota. Dena dela, Elkartetik ezingo da bazkiderik bota, aurrez zehapen espedientea egin eta bazkidea entzun gabe

V. KAPITULUA

ERREGIMEN EKONOMIKOA

30. artikulua.- Elkartearen xedeak eta jarduerak garatzeko baliabide ekonomikoak hauek izango dira:

- a.** Sarrerako kuotak, aldirokoak edo apartekoak.
- b.** Jabetzako ondare eta eskubideen produktuak, diru-laguntzak, eta legez jaso ditzakeen legatuak eta dohaintzak.
- c.** Zuzendaritza Batzordeak adostutako legezko jardueren bidez lor ditzakeen sarrerak.

31. artikulua.- Elkartearen ondarea 21.904,00 euro da

32. artikulua.- Elkartea ekonomia arloko ekitaldia, urtekoa izango da eta urte bakoitzeko abenduaren 31an itxiko da.

33. artikulua.- Elkarteko funtsen administrazioa zehatz egingo da, dagokion ikuskaritza eta publikitatea izango ditu, bazkideek funts horien norakoaren berri izan dezaten aldiro. Urtero jakinaraziko zaizkie bazkideei sarreraren eta gastuen kontuen egoerak

VI. KAPITULUA

DESEGITEA

- 34. artikulua.-** Ezohiko Batzar Nagusiak adostutakoan desegingo da bere borondatez. Ezohiko Batzar Nagusi hori bazkideen gehiengoak deitutakoa izango da xede horretarako.
- 35. artikulua.-** Elkartea deseginez gero, batzorde likidatzaile bat izendatuko da eta hori egingo da funtsen kargu; zorrak ordaindu ondoren geldikina egonez gero, bere irabaz asmorik gabeko xedeen arabera asmoren baterako izango da, zehatz esateko, Gipuzkoako jubilatuen elkartea Adinekoen Elkarteen Federaziorako, eta Federazio honek ongintzarako erabiliko luke geldikin hori eta berearen antzeko gizarte xedeei Elkarteen artean banatuko luke.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Estatutu hauetan aurreikusi gabeko guztietarako, Elkarteko eskubidea arautzeko Martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoa eta arau osagarriak ezarriko dira.

Idiazabalen 2022 Martxoaren 11an

Lehendakari Jauna



Josefa Urdangarin Beguiristain

Idazkari Jauna



Pedro M. Urquia Alustiza